

Asteburutik aurrera “Ikusezintasun partekatua” erakusketa ikusi ahalko da Montehermoso kulturunean

Merkataritzako zinegotzi Nerea Melgosak eta Hedegile kaleko merkatarien COMERCO elkarteko ordezkari Ander Ibáñez eta Gorka Basterretxeak “Ikusezintasun partekatua” argazki erakusketa aurkeztu dute; Andrea Abaigar argazkilariak Gasteizko 12 artista ezaguni (antzerki, pintura, musika eta argazkigintza mundukoak) erretratuak egin dizkie kultur proiektu horretan. Erakusketako irudietako batzuk Hedegile eta Mateo Moraza kaleetako merkataritza-establezimenduetan jarri dituzte, Montehermoso kulturuneraino daraman ibilbidea osatuz.

Argazki erakusketaz gain, Montehermoson erakusketaren *making off*aren bideo-proiektzioa jarriko da ikusgai, Cesar San Millánek egindakoa, zeinaren bidez Andrea Abrigarren sorkuntza eta prestaketa prozesua ezagutu ahalko da. Bideoa girotzeko musika Bingen Mendizabalek konposatu du, eta Luis Aranburu musika eskolako ikasleek jo dute, eskola Hedegile kalean kokatuta baitago.

“Ikusezintasun partekatua” diziplina anitzeko proiektua da, Gasteizko kulturarekin lotutako pertsonaia ezagunen erretratuaren bidez pobrezia islatzeko xedea duena. Baliabiderik ez dutenen errealitateari beste modu batez ematen zaio arreta, moda argazkien edertasun kanonarekin apurtuz.

“Erakusketa honek agerian uzten du merkataria eta artisten arteko elkarlanak, Gasteizko Udalaren laguntzarekin, dinamizazio ekintza garrantzitsu bat sor dezakeela, eta arrakasta handia izatea opa diogu”, adierazi du Nerea Melgosak.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailaren, Montehermoso kulturunearen, Gasteiz ON, FEDASOC eta COMERCO elkartean, Luis Aranburu musika eskolaren eta artisten arteko lankidetzari esker egin ahal izan da “Ikusezintasun partekatua” erakusketa, zeina apirilaren 30era arte egongo baita ikusgai.

El Centro Cultural Montehermoso acoge a partir de este fin de semana la exposición “Invisibilidad compartida”

La concejala de Comercio, Nerea Melgosa, ha presentado junto a Ander Ibáñez y Gorka Basterretxea, representantes de la Asociación COMERCO de Comerciantes de la calle Correría, la exposición fotográfica “Invisibilidad compartida”, un proyecto cultural en el que han participado 12 conocidos artistas de Vitoria-Gasteiz del mundo del teatro, la pintura, la música y la fotografía que han sido retratados por la fotógrafa Andrea Abaigar. Varias obras de la muestra se exponen en establecimientos comerciales de las calles Correría y Mateo Moraza, constituyendo un itinerario que desemboca en el Centro Cultural Montehermoso.

Además de acoger el núcleo de la exposición fotográfica, en Montehermoso también se podrá contemplar la videoproyección del making off de la muestra, realizado por Cesar San Millán, gracias al cual se podrán conocer el proceso de creación y puesta en escena del trabajo de Andrea Abaigar. Este vídeo está ambientado por la música que Bingen Mendizábal ha compuesto para la ocasión, una pieza interpretada por alumnos de la Escuela de Música Luis Aramburu de la calle Correría.

“Invisibilidad compartida” es un proyecto multidisciplinar centrado en reflejar la pobreza mediante retratos de personajes célebres de la cultura gasteiztarra. De este modo, se lanza una llamada de atención diferente sobre la realidad social de las personas sin recursos rompiendo con el canon de belleza que reflejan las fotografías de moda.

“Esta exposición demuestra que el trabajo conjunto de comerciantes y artistas, un trabajo apoyado por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, puede dar lugar a una importante acción dinamización comercial y cultural a la que deseamos el mayor de los éxitos”, ha señalado Nerea Melgosa.

La colaboración del departamento de Empleo y Desarrollo Sostenible, el Centro Cultural Montehermoso, las asociaciones Gasteiz ON, FEDASOC y COMERCO, la Escuela de Música Luis Aramburu, y las y los diferentes artistas implicados en la exposición ha hecho posible “Invisibilidad compartida”, una muestra que permanecerá en Montehermoso hasta el próximo 30 de abril.